

Etika Publikorako Batzordea

Aztergaia: 2/2021

AKORDIOA.

GAIA: (...) JAUNAK JARRI DUEN SALAKETA. EUSKO JAURLARITZAKO (...) SAILEKO (...)KO ZUZENDARITZAKO ARDURADUNAREN AURKA JARRI DU, USTEZ IRIZPIDE ARBITRARIOA ERABILIZ UTZI DUTELAKO IRAKASLE-ESPEZIALITATE BATZUETATIK KANPO.

1.- 2020ko azaroaren 15ean, Etika Publikorako Batzordeko postontzi elektronikora (...) jaunaren idazki bat heldu zen. Han azaltzen zuenez, 2019/2020 ikasturtean EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko hautagai-zerrendetara aurkeztu zen, baina (...) Saileko (...) Zuzendaritzak espezialitate batzuetara onartu zuen eta beste zenbaitetara ez, hain zuzen ere, Matematika eta Teknologiara ez.

2.- Interesdunak, idazki hartan, administrazio *iterra* eta prozesuko mugarri batzuk azaldu zituen, hala nola gora jotzeko errekurtoa, errekurto horren ebazpena, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkeztu zuen demanda, demanda-erantzuna, informazioa posta elektronikoz eskatu zuenekoa, gerorago informazio hori bera gardentasun-atarian eskatu zuenekoa, informazio hori emateko hartu zuten ebazpena eta, azkenik, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordean aurkeztu zuen errekurtoa.

3.- Aurrerago, (...) jaun interesdunak, “desarrollo argumental” izeneko atal batean, gaiaren mamia azaldu zuen, alegia, hitzez hitz: “la única razón que esgrime el Departamento de (...) para justificar que el Grado de Ingeniería de la Edificación no puede pertenecer al grupo de titulaciones de *Grado en Ingeniería*” –horregatik utzi dute Matematika Teknologia espezialitateetatik kanpo- “es la sentencia del Tribunal Supremo que concluye que el titulado en Grado en Ingeniería de la Edificación, no tiene atribuciones de Ingenieros”.

4.- (...) jaunaren iritziz: “el Departamento de (...) debería de explicar qué entiende por atribuciones de los ingenieros, ya que hasta donde yo llego, un ingeniero industrial no tiene las mismas atribuciones que un ingeniero agrónomo, por lo tanto tienen atribuciones diferentes.

Además para que una titulación posea atribuciones, obligatoriamente tiene que dar acceso una profesión regulada”.

5.- Idazki horretan bertan, jarraian, beste atal hau dator: “posibles incumplimientos de los valores, principios o conductas en el CEC”. Interesdunaren arabera: “posiblemente la descripción de los hechos pueda incumplir los siguientes principios y valores del Código Ético y de Conducta”; eta, zehatz-mehatz, aipatzen ditu integritatea, inpartzialtasuna eta objektibotasuna, eta beste jokabide eta portaera batzuk ere bai gardentasunaren eta gobernu irekiaren inguruan.

6.- Salaketa-egileak, horregatik guztiagatik, hau eskatu zion Etika Publikorako Batzordeari: “que corrobore si efectivamente, en el grupo autodenominado *Grado de Ingeniería* forman parte titulaciones que no habilitan a profesiones reguladas, y por lo tanto que no tengan atribuciones de los Ingenieros... Al ser el único criterio esgrimido por parte del director de (...) para justificar mi exclusión del grupo de “Grado en Ingeniería”, exigir una rectificación inmediata y pública, aceptar al Grado en Ingeniería de la Edificación en las especialidades arriba mencionadas, y trasladar dicha decisión al juzgado Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco”.

7.- Bigarren idazki batean, berriz, (...) jaunak salatzen du bazela beste irizpide bat ere irakaskuntzako kredituen kargari buruzkoa, baina, administrazioarekiko auzibidean aurkeztu zuen demandaren erantzunean, (...) Sailak ezkutatu egin ziola epaitegiari: “que sólo lo saben ellos porque no han publicado adecuadamente”.

8.- Idazkiaren amaieran, (...) jaunak bigarren eskari bat egin zuen, uste baitu kaltetua gertatu dela: “perjudicado por el proceder del Departamento de (...). No pretendo señalar particularmente a nadie en concreto, desconozco si ha sido una persona o varias las que han decidido ocultar información en sede judicial, pero me parece éticamente deplorable. Desconozco a qué se debe la decisión de no publicar los criterios de la comisión, ni los análisis realizados. Siguen sin garantizar respuestas ágiles a las solicitudes de las informaciones cursadas... Por lo que dejo en manos de la Comisión de Ética Pública para que valore si se ha incurrido en un procedimiento obstruccionista y de aplicación de criterios arbitrarios, fruto deliberado o no de la falta de transparencia. Acorde a las conclusiones que pueda llegar, que proceda de la mejor manera posible, que intente reparar el posible perjuicio sufrido y que exija al Director de (...), acciones para que no vuelva a ocurrir ninguna situación parecida”.

9.- EPB honetan, salaketa azterturik, ikusi genuen (...) zela garai hartan (...) Saileko (...) zuzendaria, eta goi-kargu horren jokaera zegoela ezbaian. Horregatik, alegazioak aurkezteko izapidea eskaini zitzaion, eta hark, (...) jaunak, 2020ko abenduan erantzun zuen, idatziz (irizpen honetan 9. atalean azaldu dugu zer erantzun zuen).

10.- Ordezkapenak egiteko hautagaien behin betiko zerrenda 2019ko maiatzaren 30ean argitaratu zen, (...) zuzendariaren ebazpen bidez. Ebazpen horren aurka, (...) jaunak gorako errekurtoa aurkeztu zuen, baina (...) orduko sailburuordeak errekurtoa ezestea ebatzi zuen. Orduan sailburu zen hori gaur egun Etika Publikorako Batzordeko lehendakaria da, eta, hortaz, gai honetan abstenitzea dagokio.

Begiratu dugu zer jartzen duen EAEko administrazioko eta sektore publikoko kargu publikoen etika- eta jokabide-kodean, hain zuzen ere kodearen testu bategina onartzen duen akordioan, eta, 16,8 artikuluan, ordezkapenak arautzen dituenean, jartzen du jardun-arloen¹ dekretuan zehazturik dagoen hurrenkeraz egokitzen den saileko titularrak ordezkatuko duela batzordeko lehendakaria. Hortaz, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari dagokio hura ordezkatzea.

11.- Horiek horrela, EPB honek, EJKren 16.4 artikuluko bigarren hitz-tarteak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, erabaki hau hartu du aho batez:

AKORDIOA:

I.- Aurrekariak

1.- Gobernu Kontseiluak, 2013ko maiatzaren 28an, Etika eta Jokabide Kodea (EJK) onartu zuen, zeina egun jasota baitago 2016ko azaroaren 22an onartutako Testu Bateginean. Kode hori sortzearen helburua politikaren etika-zentzua berreskuratzea eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza berreskuratzeko erronkari erantzutea izan zen.

¹ 18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen.

Horretarako, aipatu Kodeak aditzera ematen du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza exekutiboko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezen dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua da integritatea eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordetzea, haren eraginkortasuna sendotzea eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahalegintzea.

2.- Etika eta Jokabide Kodeak bost balio ditu ardatz: Integritatea; Bikaintasuna; Politika eta Kudeaketaren arteko Lerrokatzea; Lidergoa, eta Berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: Inpartzialtasuna eta Objektibotasuna; Kudeaketarako Erantzukizuna; Gardentasuna eta Gobernu Irekia; Onestasuna eta Desinteres Subjektiboa; Errespetua, eta Eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta EPB honek haiek erreferentziatzat hartuta jardun behar du, erantzun egokia emateko kargu publikodunek eta beren borondatez Kodearekin bat egiten duten parekatuek nahiz Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten gainerako pertsonak helarazitako gai eta zalantza etikoei.

3.- Horretarako, EJKren 16.3.1. e) apartatuaren lehenengo tartekian ezarritakoaren arabera, EPB organo eskuduna da “Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko kezak edo salaketak jasotzeko, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzeko”.

II.- EPB-RI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA

1.- 1/2019 gure Akordioan ere adierazi genuenez -aurreko 4/2015 eta 8/2015 Akordioetan aipatutakoa zekarren gogora-, kasu honetan ere pentsatzen dugu beharrezkoa dela gure irizpenaren esku jarritako gaia aztertu baino lehen honetaz ohartaraztea: EPB honek ezin ditu irizpenak eman etikaren arloan zuzenean edo zeharka eragina izan dezakeen giza bizitzaren edozein alderdiri buruz, botere mugatuak baititu. EPB honen zeregina xumeagoa eta eskuragarriagoa da: ebaztea EAEko sektore publikoko kargu publikoak EJKn finkatutako jokabidera egokitzeari buruz egiten diren kontsulta eta salaketak. Ez da bere eginkizunetan sartzen batzordearen irizpenaren esku jarritako jokabideak absolutuki etikotzat jo daitezkeen ala ez

erabakitzea, baizik eta jokabide horiek EJKn ezarritako balio, printzipio eta jokabideen kontrakoak diren zehaztea.

2.- Gogoeta horren ildo beretik, kasu honetan, azpimarratu beharra dago Etika Publikorako Batzorde honen lana ez dela adieraztea ea administrazioaren dena delako jarduna legezkoa iruditzen zaigun, edo halako goi-kargu batek egin duena legez zuzena begitantzen zaigun (gai horri buruz, ikus gure 8/2014 Akordioa). Horrenbestez -eta honek ez du esan nahi, hala ere, legezotasuna kargu publikoen jokabide etikotik at geratzen denik-, batzorde honek ezin du izan karguek administrazioan zer egiten duten aztertze organo, administrazioan eta baita auzibidean ere bai batira horretarako beste instantzia batzuk, eta ezin dugu haien pareko albo-bide izaten amaitu, hala bukatuko baikenuke. Horregatik, aipatu dugun moduan, Etika Publikorako Batzordearen lana da, batez ere, aztertzea ea EJKra borondatez batu diren kargu publikoek eta parekatuek kode hori betetzen duten edo ez.

3.- Etika Publikorako Batzorde honek, era berean, erabakita dauka (ikus 4/2015 eta 1/2017 Akordioak eta, berrikiago, 5/2019 eta 1/2021 Akordioak) Etika eta Jokabide Kodeak agintzen duena mugaturik dagoela denbora batera eta gai batzuetara. Onartu zenetik daude definiturik muga horiek (Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 28ko Akordio bidez onartu zen), eta, gerora ere, ekainaren 26ko 1/2014 Legea onartu zenean, muga horiek ez ziren aldatu (kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen ditu lege horrek). Horrenbestez, 2. artikuluan zehazturik dauden kargu publikoek bakarrik daukate Kodea bete beharra, eta betiere, ofizialki izendatu ditzaten ondoren eta, “banakako atxikipenaren” bidez, hitz eman ondoren beteko dutela han agintzen zaiena. Etika eta Jokabide Kodearen testu bategineko 18. artikuluan dator atxikipen hori; 2016ko azaroaren 28an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

4.- Ikusi dugunez, batzorde honek behin baino gehiagotan berretsi du parametro horien oinarrian dagoen doktrina, eta, neurri handi batean, haiek erakutsiko digute nondik nora mugatu behar ditugun gai honi buruzko gure gogoetak eta iritziak, bai gaiaren objektuari dagokionez, bai Etika eta Jokabide Kodea nork bete behar duen jakiteko orduan ere.

5.- Salaketa-idazkia eta erantsita dakarren dokumentazioa irakurrita, ulertu ahal izan dugu arazoa sortu zela (...) jauna ez zutelako onartu EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan 2019/2020 ikasturtean Matematika eta Teknologia ikasgaietan ordezkapenak egiteko izangaien zerrendetan, (...) jaunak Eraikuntzaren Ingeniaritzan eginda daukan gradua ez zutelako ontzat hartu horretarako –beste ikasgai batzuetarako bai onartu zuten–.

Ikus dezagun, hortik tiraka, (...) jaunak zer eskatzen duen lehenik behin: “corrobores si efectivamente, en el grupo autodenominado Grado de Ingeniería forman parte titulaciones que no habilitan a profesiones reguladas, y por lo tanto que no tengan atribuciones de los Ingenieros... Al ser el único criterio esgrimido por parte del director de (...) para justificar mi exclusión del grupo de “Grado en Ingeniería”, exigir una rectificación inmediata y pública, aceptar al Grado en Ingeniería de la Edificación en las especialidades arriba mencionadas, y trasladar dicha decisión al juzgado Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco”.

6.- Kontu hori Etika Publikorako Batzorde honen esparru funtzionaltik kanpo geratzen da argi eta garbi, eta, hortaz, gai horri dagokionean, salaketa ezetsi egin behar dugu.

7.- Salaketa-egileak, bigarrenik, nola sentitzen den adierazten du: “perjudicado por el proceder del Departamento de (...)”. Gainera, ez omen du honelako ezer egiteko asmorik: “señalar particularmente a nadie en concreto, desconozco si ha sido una persona o varias las que han decidido ocultar información en sede judicial, pero me parece éticamente deplorable. Desconozco a qué se debe la decisión de no publicar los criterios de la comisión, ni los análisis realizados. Siguen sin garantizar respuestas ágiles a las solicitudes de las informaciones cursadas...”. Eta, amaitzeko, adierazten du Etika Publikorako Batzordearen esku dagoela “para que valore si se ha incurrido en un procedimiento obstruccionista y de aplicación de criterios arbitrarios, fruto deliberado o no de la falta de transparencia”, eta “acorde a las conclusiones que pueda llegar, que proceda de la mejor manera posible, que intente reparar el posible perjuicio sufrido y que exija al Director de (...), acciones para que no vuelva a ocurrir ninguna situación parecida”.

Egia da idazkian jartzen duela ez duela inor seinatzeko asmorik, eta ez dakiela pertsona batek edo bat baino gehiagok erabaki duten informazioa ezkutatzea, baina, itxura batean, salaketan badirudi (...) zuzendaria jotzen dela egilezat-edo, hari eskatu behar baitaio egin dezala egin beharrekoa antzeko beste ezer gerta ez dadin. Alde horretatik, funtsezkoa da jakitea nori egotzi behar zaion EJKren balizko urraketa, ez dezagun ezer esan kode horretako arau etikoak bete beharrik ez daukan inori buruz (gai horretan, ikus 2/2019 Akordioa).

8.- Gorago adierazi den bezala, idazki horretatik eta erantsita dakarren dokumentaziotik Batzorde honek ondorioztatu du idazkian adierazten den kargua (...) Saileko (...) zuzendaria dela, hain zuzen ere EAEko ikastetxeetan ordezkapenak egiteko izangaien poltsak izapidetzeaz arduratzen zena garai hartan (zerrenda horietatik kanpo geratu da gaur egun salaketa-egile dena).

Egia bada ere zuzendari horrek, (...) jaunak, jada ez duela lehengo erantzukizun hori betetzen (...) Sailean, oraindik ere Eusko Jaurlaritzako kargu publikodun gisa jarraitzen du (...) Saileko (...) Zuzendaritzan. Hori dela-eta, EJKren xedapenak oraindik ere aplikagarriak zaizkio, nahiz eta beste erantzukizun-eremu batean diharduen; beraz, egokia da hark urraketarik egin duen edo ez aztertzen hastea Batzorde hau, dela orain betetzen duen karguan dela (...) Sailean lanean ari zenean.

9.- Etika Publikorako Batzorde honek alegazio-izapidea eman dio (...) jaunari. Kargu publikodun hori (...) Saileko (...) zuzendaria zen, eta bera arduratu zen salaketa-egilearen espedientea izapidetzeaz. (...) jaunak bere alegazioetan azaldu duenez, gai hau sortu duen administrazio-prozedurak hainbeste pertsonari eragiten dio -ezin jakin zenbati-, ezin konta ahala herritar aurkezten baitira deialdi bakoitzera, ikastetxe publikoetan irakaskuntza-ordezkapenak egiteko bidea zabalik eduki nahirik.

Gainera, (...) jaunak azaldu duenez, ikusten baldin badugu zer jartzen duen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduan (agindu horren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan aldi baterako irakasle-beharrak estaltzeko izangaien zerrenda kudeatzeko araudia), konturatuko gara batzorde tekniko bat egoten dela, aztertzeko eta ebaluatzeko ea titulazioetan besterik sartu behar den edo aldaketarik edo konbalidaziorik egin behar den, gero esparru bakoitzean hala jasota gera dadin; Batzorde horretako kideak funtzionarioak izaten direla eta proposamenak handik datozkiola (...) Zuzendaritzari, eta zuzendaritza horrek proposamen horiek bideratu egiten dituela, egintza administratibo egokien bidez.

10.- Edonola ere, Etika Batzorde honek esan beharra dauka prozedura judicial bat dagoela irekita salaketa honen kariatara, eta, horrexegatik, bereziki kontuz eta tentuz ibili behar dela gai hau aztertzeko orduan. Izan ere, batzorde honek errespeturik handiena zor dio beste erakunde batzuen lanari, bereziki Aginte Judizialari, Konstituzioz haren ardura baita epaitzea, epaitutakoa betearaztea eta, hortaz, auzigaiaz epai loteslea eta exekutiboa ematea. Ikuspuntu horretatik, esan dugun moduan, azpimarratu behar da Etika Publikorako Batzorde honen zeregina dela -eta hauxe besterik ez-, galderarik edo salaketarik egiten zaionean argitzeko ea, EJKn finkatutako jokamoldeen arabera, EAeko sektore publikoko kargu publikoen jokaera zuzena izan ote den, galdera eta salaketa horiek ebaztea. Eginkizun horrek ezin du oztopatu beste organo batzuek beren erantzukizunen esparruan izan dezaketen egitekoa, eta gure zereginak zorrotz errespetatu behar ditu beti organo horien funtzioak, haietako bakoitza bere funtzioak ari baita betetzen, baita esku artean dugun kasuan ere.

11.- Bestalde, salaketarekin batera etorri den dokumentazioan ikusi ahal izan dugu salatzaileak gai honi buruzko espedientean egin dituen errekurso eta eskaera formal guztiek izan dutela

erantzuna, eta, era berean, batzorde honek ez du inon ikusi izapide jakin batzuk ezkutatu egin ote diren arrastorik.

12.- Gure 2/2019 Akordioan azaldu genuen moduan, ezin ukatuzkoa da salaketa-egileak eskubide osoa duela eragiten dioten administrazio-erabakiak hartzeko balio izan duten dokumentuak eskuratzeko. Horrela aitortzen dio gure ordenamendu juridikoak.

2/2019 Akordio horretan gogora ekartzen genuenez, eskubide hori gauzatuko dela bermatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoak Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea du, zeina irailaren 13ko 128/2016 Dekretuaren bidez sortu zen –Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen funtsezko eskema operatiboa garatzen du dekretu horrek–, EAEko sektore publiko autonomiko eta tokikoa osatzen duten administrazio eta erakundeek emandako ezezko ebazpen ororen aurka herritarrek, aukeran eta administrazioarekiko auzien jurisdikziora iritsi aurretik, ezar dezaketen errekurtsioen kasuan, informazio publikoa eskuratzeari dagokionez.

Ildo horretatik aurrera eginez, (...) jaunak bere alegazioetan esan du joana dela jada Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordera. Bada, han baloratuko diote, behar bezala, eskaera, eta, hala badagokio, baita eskatzen duen informazioa eskuratzeko bidea eman ere.

Horrek guztiak ez du esan nahi –(...) jaunak ere halaxe dio bere kexan- batzorde teknikoek aplikatzen dituzten irizpideek ez dutenik izan behar beharrezko publizitate guztia.

10.- Hori guztia aintzat hartuta, EPB honek erabaki hau hartzen du, aho batez:

AKORDIOA:

1.- Ez onartzea salaketa, garbi dagoelako Etika Publikorako Batzorde honen esparru funtzionaletik kanpo geratzen dela. Aurretiaz, eskatu zuen azter zedila ea Eraikuntzaren Ingeniaritzako Gradua gaitu zitekeen ingeniarien eskuduntzak edukitzeko, eta eskari horrek ekarri zuen salaketa.

2.- (...) jaunari dagokion bezain bestean, salaketa ezestea, ez dugulako arrazoizko inolako arrastorik aurkitu pentsatzera eraman gaitzakeena kasu honetan EJK urratu duenik (garai hartan bera zen (...) Saileko (...) zuzendaria).

3.- Gure gomendioa da -hala egin ohi baita eta hala eskatzen baitu gardentasun-printzipioak- batzorde teknikoek publiko egitea, ahalik eta argien, aplikatu behar dituzten irizpideak, ahaztu

gabe Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak ere ezar ditzakeela kontrolak eta kontrol horiek ere bete behar direla.



Arantxa Tapia Otegi.

Etika Publikorako Batzordeko lehendakaria ordeztuz.

(EAEko eta haren sektore publikoko kargu publikodunen Etika eta Jokabide Kodearen testu bateginaren 16.8 artikuluko 1. puntua, eta kode horri aurreikuspen berriak gehitu zaizkio, Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 2. artikuluekin lotuta, dekretu horretan arautzen baitira EAEko administrazioeko sailen sorrera, ezabatzea eta aldaketa eta haien egitekoak eta jardun-arloak).

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 18a.